

EREMUAK | ERAKUSKETA DEIALDIA

2010eko abenduan abian jarri zenetik, **eremuak** programaren lan-ildo nagusietako bat izan da artegintza garaikidearen beharrak eta diskurtoak antzematea, eta, horrekin batera, eztabaida horiek aberastera eta abiaraztera bideratutako ekintzak bultzatzea. **eremuak** kontzeptu ireki baten ikuspegitik diseinatuta dago, eta bilakatzen ari diren lan-prozesu gisa ulertzen ditu jardute garaikideak. “Zuzeneko” programa da, ekitaldi bakoitzean eraikitzen baita panorama artistikoan antzemandako eskariei emandako erantzunen bidez.

Artisten proiektuak eta lanak ikusgai jartzeko erakusketa kolektiboaren formatua birpentsatu egin behar dela ondorioztatu zuten, besteak beste, 2013ko uztailan Artelekun egin zen “Editatzea, Ekoiztea, Programatzea” jardunaldietan. 2014an, **eremuak**-ek *First Thought Best* erakusketa kolektiboa egin zuen Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoa, ekainaren 27tik irailaren 21era. 2017an berriro jarri du martxan deialdi berezia. Deialdiaren xedea erakusketa kolektibo bat egitea da Azkuna Zentro-ko JOZ 1 (Jarduera Osagarrien Zentroa 1) aretoan egingo dena, 2018 otsailean eta martxoan.

Deialdia euskal testuinguru artistikoarekin harremana duten **artistei eta ekoizleei zuzenduta** dago, modu horretan harrera publikoko gunea aktibatuz. Era berean, erakusketak artisten, kritikoen eta komisarioen arteko topagune izan nahi du, askotariko lan-prozesuen arteko elkartrukea sustatzeko.

OINARRIAK:

- Partaideek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:
 1. Azken aldian egindako proiektuen eta lanen dosierra, horien argazkiekin eta lanari buruzko azalpen laburrarekin. PDF dokumentuan, eta gehienez 15 orrialdetako.

Ez da beharrezkoa erakusketarako berariazko proiekturik aurkeztea. Eginiko lanaren dossier bat eskatzen da, hautaketa-batzordeak artistaren lanaren eta ibilbidearen ahalik eta baloraziorik osoena egiteko, finkaturiko mugen barruan (hau da, PDF dokumentuan, eta gehienez 15 orrialdetako).

Mesedez, fitxategiaren izenburua osatzeko jarri zure abizena + izena + gidoi baxua + 'dossier' hitza, **komarik, azentu-markarik, punturik, espaziorik, ñ hizkirik... gabe**. Adibidez: agirreleire_dossier.pdf
- 2. Curriculum xehatua. Mesedez, fitxategiaren izenburua osatzeko jarri zure abizena + izena + gidoi baxua + 'cv' laburdura, **komarik, azentu-markarik, punturik, espaziorik, ñ hizkirik... gabe** Adibidez: agirreleire_cv.pdf
- 3. Erantsitako hiru dokumentu ala esteka ikus-entzunezkoekin (aukerazkoa).

 - Erakusketan parte hartzeko gehienezko adinik ez da finkatu.
 - Dokumentazioa aurkezteko epea **2017ko abuztuaren 15ean** amaituko da.
 - Batzordeko kideek hautatuko dituzte lanak: Iñaki Imaz-ek, Pello Irazu-k, Itziar Okariz-ek, Leire Vergara-k eta horiekin batera Agar Emily Pethick (Londreseko The Showroom-en¹ zuzendaria) kanpoko gonbidatu gisa.
 - Gutxienez 10 proposamen aukeratuko dira erakusketan aurkezteko.
 - Hautatuek 1.200 €-ko gordin ordainsaria jasoko dute.

¹ <http://www.theshowroom.org/>

- eremuak programak hartuko ditu bere gain erakusketa guneko ekoizpen-gastuak: obra aretora egokitzeko kostuak, aurretik batzordeak onartutako aurrekontuaren barruan, proiektua aretoan muntatu eta desmuntatzearen kostuak, obraren garraioa.
- Erakusketarako lan-prozesuaren segimendua eremuak programaren batzordeko kideek egingo dute.
- Erakusketarekin lotutako argitalpena egingo da.
- Proposamenak euskarri informatikoan bidali behar da egiaztatzeko dokumentazioa PDF fitxategi-formatuan, webguneko online inprimakiaren bidez: <http://www.eremuak.net/eu/erakusketa-deialdia-2017>

eremuak-en erakusketa deialdian online parte hartzeko erregistratu egin behar duzu.

Edozein zalantza edo galdera argitzeko: eremuak@eremuak.net

Zorte on eskaerarekin!